


IZAN EUSKALDUN GAUR

Zenon Uriguen
pasiotarra



IZENA ETA IZANA

Nortzuk eta zer gara Euskaldunak? Eta zer egin bear dogu benetako euskaldunak izateko? Arrokeri barik esan dagikegu Euskal erriak eta euskadunak entzute ona izan dogula lurbira osoan onartuak izanik. Zergaitik? Gure asaba zaarrak euskal izena eta izana gorengo maillan ipiñi ebelako izaera, biziera ta ekintza goragarriak gaitik. Euskal gizakiari jatorriz datorkio leialtasuna ta zintzotasuna. Ori argi eta garbi adierazteko zintzo jokatu, sendo ekin, egizale eta baikorra izan bear da jokabide guztietan. Bai, izena ta izana kidekoak dira eta alkarrekin eten eziñeko lotura dauke. On egiñen bidez lortzen da izenik goragarriena.

EUSKAL NORTASUNA

Gaur egun gizakia ezagutzeko bere izaera, griña ta joera barru-barruko sustrai-guneak aztertu, ikasi ta jakin bear da. Ara emen argibide batzuk. **Zer da nortasuna?**

Nortasuna gizakiaren buru jabetasun betea ta eraginkorra da, baita be gure ekintza ta eragintza zuurtasun aundiz bizi ta erakustea. Nortasuna ez da giza azaletik ezagutzen, eta bai barne-muiñetan erne ta izaera osoan loratzen dana. Zer da askatasuna? Aukeramena: Aukeratu, bai, nortasuna edo porrot egitea, garaipena edo ondamendia, zoriona edo zoritxarra. “Nortasun bako erria, aizean dabillen orria”. Askatasuna ez da, ba, nai dodana egitea. Aukeratu!!!

EUSKAL ELBURUA

Euskaldunen elbururik beinena ta gorena bere burua da, bere nortasuna, izaera eta biziera. Emendik datorkigu ekintza eder guztien sorburua. Giza-emakume zintzoen ezaugarria nortasuna da. Pertsona bakotzak eta, era berean, erriak bere nortasuna agertu, bizi eta adierazi bear dau. Ezin ukatu. Euskaldun izatetik datozen ainbat onbide eta eragite goresgarriak: jatortasuna, leialtasuna, ta buru-belarri langille izatea. Bai, goresgarria izan da lantegi ugari ta eragin aundikoak jarri erriaren lanbide eta ogibide izanik. Au da **Erriari garapena eta garaipena emotea**. Kristau fedea bultzatuz lortu dau gure erriak bere batasuna, Jauntxukeriak onbideratu, gorrotoak ezereztu eta arrokeriak azpiratu.



ORAIÑA TA ETORKIZUNA



Gaurko gizartea politikoa dogu. Egunetik egunera politika-jokabidea alderdikeria egin jaku. Gure erriaren gidariak zatituta ikusten doguz eta zatiketara daroe erria. Egia da Kristo gure jaunak esana: **“Bere baitan zatiturik dagoen erreinua errauts biurtuko da”**. (Lc. 11-14) Auxe

da gaurko auzia: aldedikeriak danak danen aurka aurrez aurre jokatzea. **“Batzuk besteak baztertuz, batzuk besten contra ekiñik ezin da erri au jaso”** (M. Atxaga). Euskadik guri eskatzen daukun atsegin saria eta ekintza aintzagarria euskaldunen batasuna da beste asmo eta ekimen guztien ganetik. Azkenengo urteetan gure aberriak kalte gorriak izan ditu bere bizieran. Aberria alderdi guztien ganetik dago. Zer egin? **“Gure buruak urritu eta Aberria indar-berritu”** Aberriaren alde gure biotz zabaltasunaren aberaztasunaz izan gaitezen euskaldun garbi ta zintzoak, danok danen alde Aberriaren aintza ta garaipena bizi eta txalotuz. **“Audaces fortuna iuvat”**. **“Fortunak ausartak laguntzen ditu”** **“Altius, citius, fortius”**- **“Gorago, arinago ta indartsuago”** Gure Nortasuna ta elburua da **-Aberria-Lauburua-Ikurriña**.